

# SOZIO

## HITZAURRE GISA

Pablo Sotés Ruiz

*Nafarroako Unibertsitate Publikoa*

Helbide elektronikoa: psotes@unavarra.es

**B**AT Soziolinguistika aldizkariaren zenbaki honetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artean 2009ko irailean antolaturiko “*Euskararen Presentzia eta Erabilera Unibertsitatean: Elebitasunetik Eleaniztasunera*” udako ikastaroa dugu abiapuntu. Lehendabiziko aldiz egin da ikastaromota hau; alde batetik, Nafarroako Unibertsitateen udako ikastaroen barruan euskaraz eskaintzen den lehena delako eta, bestetik, bi unibertsitateen artean antolatzen den lehen udako ikastaroa ere badelako. Bere helburua, Europako Unibertsitate Eremuari egokitzeko asmoz, komunitate elebidunetan hizkuntzek bizi duten egoera aztertzea izan da.

Ikastaro honen lehenengo xedeari helduz, euskararen eta zientziaren arteko harremanak uztartu nahi izan dira. Helburu horrekin, zientziarloan euskara transmisio-hizkuntza gisa aztertzeke zientzia-eremu ezberdinetan euskaraz egiten den dibulgazioa aztergai hartzen da.

Pilar Kaltzadak “*Gaurko komunikazioa biharko gizarteari begira*” artikuluan egungo komunikazioak hartu duen nagusitasuna planteatzen du. Komunikabide tradizionalak identitatearen krisian murgilduta daude, audientziak eta publizitatea bi adierazle nagusi izanik. Gaurko komunikazioa dagoeneko egitura berrietan oinarritzen ari da, eta etorkizunean informazioaren, entretenimenduaren eta komunikazioaren egiturak askoz dinamikoagoak izango dira.

Euskarak komunikabideetan duen presentziarekin jarraituz, Joseba Barandiaranek “*Ekonomia k-z ere idazten da*” izenburuko artikuluan ekonomiarloan euskaraz zabaltzen den informazioa hurbiltzen gaitu. Ekono-

miaz bereziki arduratzen diren euskarazko komunikabide espezializaturik egon ez arren, prentsa idatzian eta irradian, beste gai batzuk jorratzen diren bezala, ekonomiaz ere jarduten da. Duela 15 urtetik geroztik kazetari eta ekonomialari elebidunak ateratzen ari dira unibertsitateak, eta hizkuntza ezberdineko informazio iturriak erabiltzen dituzte; beraz, eleaniztasuna ezinbesteko ezaugarri bihurtu da lan-eremu honetan.

Bigarren xedeari dagokionez, hizkuntza, psikologia eta gizarte-ikuspegitik unibertsitatean hezkuntza elebidunak eta eleaniztunak ekar dezaketan aberastasuna aztertzen da. Horretarako bi unibertsitate-esparruetako esperientziak kontuan hartzen dira: Galeseko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

*“Galeseko Unibertsitateetan galesera sustatzearen pozak eta frustrazioak”* izeneko artikularekin Colin H. Williamsek galeseraren sustapenean hizkuntza-politika eta -plangintza formalaren beharra azpimarratzen du. Unibertsitatean galeseraren eskaintzaren inguruan sortu berri diren eztabaidak eta ekimenak aztertzen ditu ondorengo bost esparruetan: gutxiengoaren hezkuntzari buruzko diskurtsoa, galeseraren eskaintzaren eraginkortasuna, hizkuntza-egitasmoak, goi-mailako hezkuntza-sistemako erakunde autonomo baten sorrera eta berdintasun-politikari buruzko legedia.

Euskal Herriko Unibertsitatean hizkuntzen egoeraz arduratzen da Jasone Cenoz *“Elebitasunetik eleaniztasunera Euskal Herriko Unibertsitatean: Eleaniztasun Plana”* bere artikuluan. Gaztelania eta euskara unibertsitateko hizkuntza ofizialen elebitasunetik nazioarteko hizkuntzak garatzera zuzentzen den eleaniztasun-plana -batik bat ingelesaren garapena- azaltzen du. Plan horren arabera, eleaniztasuna hizkuntza bakoitza funtzio ezberdinetarako erabiltzearen printzipioan oinarritu behar da, eta, beraz, unibertsitateak hizkuntza bakoitzak bere testuinguruan duen erronkari aurre egin behar dio.

Hirugarren xedeari eutsiz, euskara transmisio-hizkuntza bezala erabiltzen duten unibertsitateen hizkuntza-plangintza ezagutu nahi dira. Hizkuntzei dagokionez, gure testuinguru hurbilean Europako Unibertsitate Eremuari egokitzen ari diren unibertsitateen esperientziak oso interesgarriak jotzen ditugu unibertsitateen artean hizkuntza-plangintzak aberasteko. Asmo honekin bertako unibertsitate batzuen esperientziak ditugu (Mondragon Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Iparaldeko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa), eta baita Kataluniako unibertsitate batena ere (Pompeu Fabra Unibertsitatea).

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) hizkuntza arduradunek *“Eleaniztasun gehigarriaren erronka: HUHEZiko hizkuntza plangintza Irakasle Ikasketetan”* planteatzen dute. Orain arte, irakasle euskalduna izatea identitate-zeinu bat izan den bezala, hemendik aurrera irakasleen erronka berria eleaniztunak izatea da. Baina, irakasleak hiru hizkuntzatan moldatzeko gai izateko, hizkuntza-curriculum ongi antolatu eta integratu behar da gradu berrietan.

Euskal Herriko Unibertsitateko esperientzia Jon Irazustak azaltzen digu *“Euskara sustatzeko politika UPV/EHU: Plan gidaria”* izeneko artikuluan. Ikuspegi historiko batetik hasita gaur egun unibertsitateak abian duen plan gidaria zehazten du bederatzirehun eremu ezberdinetan: administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko langileak, euskarazko irakaskuntza, irakasle eta ikertzaileak, euskarazko ikasmateriala, prestakuntza linguistikoa, ikerketa eta zabalkundea, euskara erabiltzeko arauak, euskararen azpiegitura eta beste unibertsitateko erakundeekiko harremanak.

Euskararen presentzia Iparraldeko Unibertsitateetan Jean-Baptiste Coyosen eskutik datorrigu *“Euskararen presentzia unibertsitate-mailan Iparraldean”* artikuluan. Paueko eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko euskararen presentzia hiru unibertsitate-ikastetxe ezberdinetan aurkitzen da. Artikuluan euskal ikasketen sailaren antolaketa, euskararen presentzia beste sail batzuetan eta irakasleen formazioa azaltzen dira. Amaitzeko, gaur egun euskararen presentzia bermatzeko helburu batzuk ere planteatzen ditu.

*“Euskararen presentzia Nafarroako Unibertsitate Publikoan”* neuk azaltzen dut. Unibertsitatea sortu zenetik euskarak gorabehera asko bizi izan arren, garai honetan 2007-2009 Euskararen Plan Estrategikoa indarrean dago. Horren baitan, bereziki aztertzen dira ikasleen euskararen ezagutza eta beren hizkuntzaren aukeraketa, unibertsitateko euskarazko irakasgaien eskaintza, irakasleen euskaraz irakasteko gaitasuna eta administrazio eta zerbitzuetako langileen hizkuntza-gaitasuna. Etorkizun hurbilean unibertsitatean euskarak biziko duen egoera ere aurreratzen saiatzen da.

Europako Unibertsitate Eremuaren barruan Kataluniako unibertsitate baten esperientzia dugu, hain zuzen ere, Carmen Perez-Vidalek *“Hizkuntza ikasketa sustatzea Kataluniako goi-mailako hezkuntzan: Pompeu Fabra Unibertsitateko (UDF) eleaniztasunerako Ekintza-Plana (2007-2013)”* idatzitako artikuluan. Eleaniztasunerako Ekintza Planaren helburua da unibertsitatean hizkuntza-politika bat lantzea laneko hiru hizkuntzak sustatzeko, eta, ahal den neurrian, laugarren hizkuntza ere sartzeko. Plan honen helburu nagusia esparru eleaniztun bat eraikitzen laguntzea da, hizkuntza eta kultura katalanaren zaintzan eta sustapenean oinarrituta.

Ikastaroari amaiera emateko arlo zientifikoan esperientzia eleaniztuna duen pertsona batengana jo genuen. Eta horixe da Ludger Mees-ek *“Eleaniztuna eta euskalduna, baita mundu akademikoan ere: posible ote?”* artikularekin ematen diguna. Berarentzat 21. mendean eleaniztasuna beharrezkoa da gure bizitzarako behar dugun informazioaren sarbidea ziurtatzen baitu. Hizkuntzak komunikazio-tresnak izateaz gain mundu eta kultura berriei atea irekitzeko ezinbesteko lanabesak bihurtzen ari dira. Amaitzeko, unibertsitatean euskara eta beste hizkuntzen egoerei buruzko gogoetak eta eztabaidak planteatzen ditu.

BAT Aldizkarian ohikoa den bezala, gai nagusian bildutako artikuluez gain, beste bi artikulua ere eskaintzen ditu zenbaki honek GUREAN

atalean. Artikulu horiek, Soziolinguistika Klusterrak Eusko Ikaskuntzaren XVII. Kongresuan antolaturiko *"Hizkuntzen Ekologia eta Garapen Jasangarria"* izeneko bi saioen ingurukoak dira (Gasteiz 2009ko azaroaren 18-20). Lehen saioan Iñaki Martínez de Luna irakasleak *"Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak"* komunikazioa aurkeztu zuen eta Itziar Idiazabal irakasleak *Hizkuntza aniztasuna ondare gisa UNESCOren ekimenetan, Euskal Herritik begiratu bat* lana. Artikulu honek, bi komunikazio horiek laburbiltzen ditu, ideia nagusiak jasoz eta irakurleari hainbat gogoeta eskainiz.

Bigarren saioko ideia nagusiak *"Hizkuntza kudeaketa enpresetan globalizazio aroan: lau enpresetan dinamikak, ikuspegia eta posizio berriak"* artikuluan biltzen dituzte Daniel Herrosillak, Juan Jose Arrospidek eta Maria-Jose Azurmendik. Bertan, FAGOR, KUTXA, EMUN eta IMHren (Instituto Makina Herramienta) esperientziak ezagutu ziren, eta artikulu honetan komunikazio horietako ideia nagusiak eskaintzen dira.

Zenbakiari amaiera emateko *"Hezkuntza eleanitza bidean: Euskal hezkuntza, nazioarteko ikuspegitik begidatuz"* artikuluan Maria-Jose Azurmendi irakasleak Jasone Cenozek argitaratu duen *Towards Multilingual Education. Basque Education Research from an International Perspective* (2009) liburuaren inguruko aipamenak egiten ditu. Azurmendik oso irakurketa sakona egin dio liburuari, bere eduki zabalak eta ikuspegi berriak zorrotasunez eskainiz. Bere ideia da euskal hezkuntza elebidunaren eta eleaniztunaren emaitzen inguruko eztabaida, testuinguruko emaitzekin erkatuz egin behar dela, eta Euskal Herriko hezkuntzaren egoera interesgarria dela nazioarte-mailan ere.■

